



TOLOSAKO
UDALA

**LAU ADMINISTRARI LANPOSTU BETETZEKO DEIALDIA, ALDI BATERAKO
ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESUAN.
JARRAIBIDEAK ETA JARDUTEKO PROTOKOLOA
2020KO UZTAILAREN 23KO AZTERKETARAKO**

- Azterlekura kiroldegiko sarrera nagusiaren alboko eskaileretatik sartu beharko da 09:30etik aurrera.
 - Abizenaren lehen letra "A" letraren eta "K" letraren artekoa duten izangaiek 09:30etik 10:00etara sartu beharko dute.
 - Abizenaren lehen letra "L" letraren eta "Z" letraren artekoa duten izangaiek 10:05etik 10:30era sartu beharko dute.
- Ilara bat osatuko da kiroldegira sartzeko, eta udaltzainen eta laguntzaileen jarraibideak bete beharko dituzte.
- Kiroldegira sartzeko ilaran zain dauden bitartean, izangaiek 1,5 metroko segurtasun-tartea mantendu beharko dute beren artean.
- Izangai guztiek eskura izan beharko dute Nortasun Agiri Nazionala edo haien nortasuna egiaztatzen duen antzekoren bat, azterlekura sartu aurretik.
- Izangaia nor den egiaztatu ondoren, epaimahaiko kideek eta/edo laguntzaileek emandako jarraibideak bete beharko dituzte, eta haiek adieraziko diete non eseri behar duten.
- **Nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea kiroldegira sartzeko, eta eskuak garbitzea sarreran eta irteeran gel hidroalkoholikoarekin. EZIN IZANGO DA INOR SARTU MASKARARIK GABE EDO ESKUAK GARBITU GABE.**
- Azterketa amaitu ondoren, izangaia eskua altxatu beharko du, eta laguntzaile batek azterketa jaso arte itxaron. Zer atetik irten behar duen ere adieraziko dio laguntzaileak izangaiari.
- Azterketa amaitutakoan, hautagaiek ez dute taldetan geratu behar kiroldegiaren kanpo aldean.

Tolosan, 2020ko uztailaren 20an

EPAIMAHAI



TOLOSAKO
UDALA

**CONVOCATORIA PARA CUATRO PLAZAS DE ADMINISTRATIVO EN EL PROCESO
ESTABILIZACIÓN DE EMPLEO TEMPORAL
INSTRUCCIONES
PARA EL EXAMEN DEL DÍA 23 DE JULIO DE 2020**

- El acceso al recinto se realizará desde las escaleras laterales del acceso principal al polideportivo a partir de las 9,30 de la mañana.
 - Los aspirantes cuyo apellido esté entre la letra “A” y la letra “K”, deberán acceder al recinto desde las 9,30 de la mañana hasta las 10,00 horas.
 - Los aspirantes cuyo apellido esté entre la letra “L” y la letra “Z”, deberán acceder al recinto desde las 10,05 de la mañana hasta las 10,30 horas.
- Se formará una fila para el acceder al polideportivo y se seguirán las instrucciones de la policía municipal y del personal auxiliar para ello.
- Mientras estén esperando en la fila para el acceso al polideportivo, los aspirantes deberán mantener la distancia de 1,5 metros de seguridad entre cada uno.
- Todos los aspirantes deberán tener a mano el Documento Nacional de Identidad o similar que acredite su identidad antes de la entrada al recinto.
- Una vez acreditada la identidad del aspirante, éste seguirá las instrucciones del Tribunal y/o los ayudantes, que les indicarán donde deben de sentarse.
- **Será obligatorio utilizar mascarilla para entrar al recinto polideportivo, así como limpiarse las manos a la entrada y a la salida con gel hidroalcohólico. NO PODRÁ ENTRAR NADIE SIN MASCARILLA O SIN LIMPIARSE LAS MANOS.**
- Una vez finalizado el examen, el aspirante deberá levantar la mano y esperar a que un ayudante le recoja el examen. Asimismo, le indicará la puerta de salida del recinto.
- Los aspirantes evitarán quedarse en grupos fuera del recinto polideportivo una vez finalizado el examen.

Tolosa, 20 de julio de 2020

EL TRIBUNAL CALIFICADOR



**LAU ADMINISTRARI LANPOSTU
BETETZEKO DEIALDIA, ALDI
BATERAKO ENPLEGUA
EGONKORTZEKO PROZESUAN.
JARRAIBIDEAK ETA JARDUTEKO
PROTOKOLOA
2020KO UZTAILAREN 23KO
AZTERKETARAKO**

I.- Protokoloaren helburua eta hartzailak

Protokolo honen helburua da prebentzio-neurriak ezartzea COVID-19a kutsatzea eta hedatzea saihesteko, eta bitartekoak jartzea segurtasuna eta osasuna babesteko oposizio honetan: Tolosako Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dauden 4 administrari-plaza jabetzan betetzeko oposizioa.

Horretarako, COVID-19aren infekzioaren prebentzio- eta kontrol-neurriei buruzko informazio tekniko eta operatiboa jakinarazten da, egungo egoeraren aurrean segurtasun-bermerik handiena eskaintzen duena. COVID-19aren aurrean osasuna babesteko gomendioen eta osasun-neurrien dokumentu hau idatzi da, oposizioa egin aurretik, bitartean eta ondoren erabiltzeko, osasun-agintarien gomendioekin bat etorriz.

Aurrekoa gorabehera, COVID-19arekin lotutako etorkizuneko bilakaera epidemiologikoaren eta aipatutako osasun-agintariak ezar ditzaketen irizpide berrien egokitasunaren aurrean, Tolosako Udalak, beharrezkoa izanez

**CONVOCATORIA PARA CUATRO
PLAZAS DE ADMINISTRATIVO
EN EL PROCESO
ESTABILIZACIÓN DE EMPLEO
TEMPORAL
INSTRUCCIONES Y PROTOCOLO
DE ACTUACIÓN
PARA EL EXAMEN DEL DÍA 23
DE JULIO DE 2020**

I.- Finalidad y destinatarios del Protocolo

La finalidad de este protocolo es establecer las medidas preventivas para evitar el contagio y propagación del COVID-19 y adoptar medios para proteger la seguridad y la salud de las personas implicadas en la Oposición para la cobertura en propiedad de 4 plazas de administrativo vacantes en la plantilla de personal funcionario del Ayuntamiento de Tolosa.

Para ello, se da a conocer la información técnica y operativa sobre las medidas de prevención y control de la infección por COVID-19 que ofrezca la máxima garantía de seguridad ante la actual situación. Se ha redactado el presente documento de recomendaciones y medidas sanitarias dirigidas a la protección de la salud frente al COVID-19, antes, durante y después de la celebración de la oposición, de acuerdo con las recomendaciones de las autoridades sanitarias.

No obstante lo anterior, ante la



<p>gero, Protokolo honen edukia egokitzeko ahalmena gordetzen du, eta berehala emango luke horren berri, web orrian argitaratuz (www.tolosa.eus).</p> <p>Protokolo honetan zehazten dira antolatzaileek aldeztu aurretik hartu beharreko neurriak, eta proban zehar eta probaren ondoren hartu beharreko neurriak. Probak irauten duen bitartean hartutako neurriak nahitaez eta zorrotz bete beharko dituzte oposiziorik gabeko, epaimahaiko kideek, aholkulari teknikoek eta laguntza-langileek, baldin eta proba egiten den instalazioetan bertan badaude.</p> <p>II.- Probak egin aurreko gomendioak eta neurriak</p> <p>1. Neurriak aldeztu aurretik ezagutaraztea parte-hartzaile guztiei</p> <p>1.1. Protokolo hori Udalaren webgunean argitaratuko da, eta izangaiek bere egin eta beren gain hartu beharko dituzte protokolo honetan adierazitako higiene- eta osasun-neurriak, eta probak berarekin dakartzan osasun-arriskuak.</p> <p>1.2. Era berean, protokolo honen berri emango zaie epaimahaiko kideei, aholkulari teknikoek eta laguntza-langileei, eta bere egin eta beren gain hartu beharko dituzte protokolo honetan adierazitako higiene- eta osasun-neurriak, eta probak berarekin dakartzan osasun-arriskuak.</p>	<p>futura evolución epidemiológica asociada al COVID-19 y el oportuno cumplimiento de nuevos criterios que pudieran ser establecidos por las citadas autoridades sanitarias, el Ayuntamiento de Tolosa reserva la facultad de adaptar, en caso de que fuera necesario, el contenido del presente Protocolo, hecho que se haría público de forma inmediata mediante su publicación en la página web (www.tolosa.eus).</p> <p>En este Protocolo se detallan las medidas a tomar previamente por la organización, medidas a tomar durante la prueba y posteriormente a la misma. Las medidas contempladas durante la prueba serán de obligado y estricto cumplimiento, siempre que se encuentren de manera presencial en las instalaciones donde se realiza la prueba, tanto por parte de los opositores como de los componentes del tribunal, asesores técnicos y personal de apoyo.</p> <p><u>II.- Recomendaciones y medidas previas a la celebración de las pruebas</u></p> <p>1. Conocimiento previo de las medidas a todas las personas participantes</p> <p>1.1. Este protocolo será publicado en la página web del Ayuntamiento, debiendo los aspirantes asumir y responsabilizarse tanto de las medidas higiénicas y sanitarias</p>
--	---



<p>1.3. Beraz, protokolo honen edukiaren berri emango zaie probetan modu batera edo bestera parte hartzen duten pertsona guztiei, eta, hala badagokio, edozein aldaketaren berri ere eman beharko zaie.</p> <p>COVID-19aren aurrean bereziki ahulak diren oposiziogileek, epaimahaiko kideek, aholkulariek edo laguntzaileek (diabetesa dutenak, gaixotasun kardiobaskularra, hipertentsioa, immunoeskasia, biriketako gaixotasun kronikoa, tratamendu aktiboko fasean dagoen minbizia, haurdunaldia eta 60 urtetik gorakoak) horren berri eman beharko dute proben aurretik, probetan parte hartzea komeni den edo ez ebaluatzeko.</p> <p>1.5. Oposizioan parte hartzen duen edozeinek COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak baditu, edo kutsatzeko kasu posible, probable edo kasu baieztatutzat jo badaiteke, edo sintomak dituen pertsona batekin harreman estua izan badu, jakinarazi egin beharko du eta etxean konfinatuta egon beharko du.</p> <p>1.6. Hauexek dira probetarako une eta espazioetan hartutako neurri guztien oinarritzko printzipioak:</p> <ul style="list-style-type: none">– Pertsonarteko gutxieneko tartea 1,5 metrokoa izatea.– Eskuen higieena.– Arnas higieena: higieena-maskarak erabiltzea.– Ukitutako zentroak eta gainazalak behar bezala garbitzea eta desinfektatzea.	<p>indicadas en este protocolo, como de los riesgos sanitarios inherentes a la prueba.</p> <p>1.2. Asimismo, este protocolo será comunicado a los miembros del tribunal, asesores técnicos y personal de apoyo y asumirán y se responsabilizarán tanto de las medidas higiénicas y sanitarias indicadas en este protocolo, como de los riesgos sanitarios inherentes a la prueba.</p> <p>1.3. Por tanto, todas las personas que participen de una forma u otra en las pruebas serán así informadas del contenido de este protocolo y, en su caso, deberán ser informadas de cualquier modificación.</p> <p>Los opositores, personal del tribunal, asesores o personal de apoyo que sean personas especialmente vulnerables frente a COVID-19 (personas con diabetes, enfermedad cardiovascular, incluida hipertensión, inmunodeficiencia, enfermedad pulmonar crónica, cáncer en fase de tratamiento activo, embarazo y mayores de 60 años) deberán informar previamente a las pruebas, para evaluar la conveniencia de su participación en las mismas.</p> <p>1.5. Cualquier persona implicada en la oposición que tenga síntomas compatibles con COVID-19 o que pueda calificarse como caso posible, probable o confirmado de contagio, o que haya tenido contacto estrecho de</p>
---	--



<p>2. Oposizioaren egoitzen antolaketa eta logistika</p> <p>Proben antolaketaren arduradunek antolaketa- eta logistika-lan hauek egingo dituzte:</p> <p>2.1. Kontuan hartuta oposizioetarako hautagaiak 366 direla, oposiziogileak modu egituratuan banatuko dira, pilaketak saihestuta.</p> <p>2.2. Sarbide-ate kopuru egokia zehaztuko da oposiziogileei taldeka dei egiteko egoitza bakoitzean, eta, beharrezkoa izanez gero, mailaka, pertsonen jario arin eta ordenatua lortzeko eta pilaketak saihesteko.</p> <p>2.3. Oposiziogileei eta proba horietan parte hartzen duten langileei probak egiten zaizkien eraikinetarako sarbidea kontrolatzeko neurriak artikulatuko dira.</p> <p>2.4. Etxeko maskarak eta gel hidroalkoholikoak izango dira, eskuak garbitzeko, eta paperontziak, tapa eta pedaldunak, oposiziogile-kopuruaren proportzio egokian eta behar adina, gutxienez bat sarrera-puntu bakoitzean.</p> <p>2.5. Informazio-kartelak jarriko dira babes-elementuen erabilerari, pertsonen arteko segurtasun-tarteari, eskuen higieneari eta arnas higieneari buruz, bai eta sarbidea murrizteari buruz ere, baldin eta COVID-19arekin bateragarria den sintomarik izanez gero.</p>	<p>persona sintomática, deberá comunicarlo y permanecer confinada en su domicilio.</p> <p>1.6. Los principios básicos que fundamentan todas las medidas tomadas en los distintos momentos y espacios de las pruebas son los siguientes:</p> <ul style="list-style-type: none">– Mantenimiento de la distancia mínima interpersonal de 1,5 metros.– Higiene de manos.– Higiene respiratoria: uso de mascarillas higiénicas.– Limpieza y desinfección adecuadas de los centros y superficies en contacto. <p>2. Organización y logística de las sedes de la oposición</p> <p>Los responsables de la organización de las pruebas, procederán a realizar las siguientes tareas de organización y logística:</p> <p>2.1. Considerando que el número de aspirantes a las oposiciones es de 366 personas, se distribuirán a los opositores de manera estructurada y evitando aglomeraciones.</p> <p>2.2. Se definirán un número adecuado de puertas de acceso en cada sede donde convocar a los opositores por grupos y, si fuera necesario, de manera escalonada, para conseguir un flujo de personas ágil y ordenado, evitando aglomeraciones.</p>
---	--



<p>2.6. Eraikinetara sartzeko ibilbideak ezarriko dira, eta ibilbidea seinaleztatu egingo da azterketa-guneetaraino, pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-tartea 1,50 metrokoa izan dadin une oro.</p> <p>2.7. Espazioak identifikatu eta antolatuko dira, une oro pertsonen arteko 1,50 metroko tartea mantentzeko moduan: eremu komunak (sarbideak, komunak...), azterketa-guneak (ikasgelak eta azterketarako altzariak).</p> <p>2.8. Erabiliko diren espazio guztiak garbitu eta desinfektatuko direla bermatuko da, sarbideak, azterketa-guneak, komunak eta altzariak barne, probak egin baino 48 ordu lehenago, gehenez ere, eta arreta berezia jarriko zaie erabilera komuneko eremuei eta gehien ukitu ohi diren elementuei, hala nola, ateen heldulekuak, mahaiak, aulkiak, eskudelak, zoruak, etengailuak eta beste elementu batzuk. Desinfekzioa prestatu berri den lixiba diluzioekin egingo da (1:50), edo merkatuan dauden eta Osasun Ministerioak baimendu eta erregistratu dituen efektu biruzidako desinfektatzaileetako edozeinekin, eta espazioak itxi egingo dira erabili arte. Proben ondoren, eta parte-hartzaile guztiak eraikinetik atera ondoren, espazio guztiak garbitu egingo dira berriro.</p>	<p>2.3. Se articularán las medidas encaminadas a controlar el acceso a los edificios donde se realicen las pruebas a los opositores y personal implicado en el desarrollo de las mismas.</p> <p>2.4. Se dispondrá de mascarillas higiénicas y geles hidroalcohólicos para la limpieza de manos, y papeleras con tapa y pedal en número suficiente o proporción adecuada al número de opositores, al menos uno en cada punto de acceso.</p> <p>2.5. Se ubicará la cartelería informativa sobre la utilización de los elementos de protección, distancia interpersonal de seguridad, higiene de manos e higiene respiratoria, así como restricción del acceso en caso de tener síntomas compatibles con COVID-19.</p> <p>2.6. Se establecerán itinerarios de acceso en los edificios y se dispondrá la señalización del recorrido hasta los diferentes espacios de examen, de modo que permitan mantener la distancia mínima de seguridad de 1,50 metros entre personas en todo momento.</p> <p>2.7. Se identificarán y organizarán los espacios de modo que pueda mantenerse una distancia interpersonal de 1,50 metros en todo momento: zonas comunes (accesos, aseos...), zonas de examen (aulas y mobiliario para examen).</p>
--	--



<p>2.9. Areagotu egingo dira azterketa-guneetako aireztapen naturala eta mekanikoa, leihoak irekiz eta/edo eraikinetako aire egokituko instalazioetan aire-berriztapenaren bolumena handituz, eta, hala badagokio, aire-iragazkien garbiketa indartuz.</p> <p>3. Egoitzetarako eta azterketa-guneetarako sarbidea</p> <p>3.1. Probak egiten dituzten oposiziogileei eta proba horietan parte hartzen duten langileei soilik utziko zaie eraikinetara sartzen.</p> <p>3.2. Probak egiten diren eraikin bakoitzean, argi eta garbi adieraziko dira sarbideak, eta behar diren elementuak jarriko dira kanpotik ikusteko eta hautagaiek erraz identifikatzeko kasu bakoitzean zer sarbide erabili.</p> <p>3.3. Probak egingo diren eraikinetara sartzeko, hainbat elementu jarriko dira oposiziogileek ilara bat osa dezaten esleitutako ateraino iristeko, eta karteletako jarraibideak eta laguntzaileen jarraibideak bete beharko dituzte, une oro 1,5 metroko pertsonen arteko segurtasun-tartea bermatzeko. Dagozkion azterketa-guneetara sartzen direnean, era berean, pertsonen arteko 1,5 metroko tartea mantendu beharko dute beti, eta dagozkion tokian itxaron beharko dute (kanpoan edo barruan), beharrezkoa den guztietan.</p>	<p>2.8. Se garantizará la limpieza y desinfección de todos los espacios a utilizar, incluidas zonas de acceso, zonas de examen, baños y mobiliario, con una antelación máxima de 48 horas previas a la celebración de las pruebas, prestando especial atención a las zonas de uso común y a las superficies de contacto más frecuentes como pomos de puertas, mesas, sillas, pasamanos, suelos, interruptores y otros elementos. La desinfección se realizará con diluciones de lejía (1:50) recién preparados, o cualquiera de los desinfectantes con actividad virucida que se encuentran en el mercado y que han sido autorizados y registrados por el Ministerio de Sanidad, y se procederá al cierre de los espacios hasta su utilización. Después de las pruebas y una vez que todos los participantes hayan abandonado el edificio, se procederá de nuevo a la limpieza completa de todos los espacios.</p> <p>2.9. Se intensificará la ventilación natural y mecánica de los espacios de examen, abriendo ventanas y/o aumentando el volumen de renovación de aire en las instalaciones de aire primario de los edificios, y reforzando la limpieza de los filtros de aire, en su caso.</p> <p>3. Acceso a las sedes y a los espacios de examen</p>
---	---



<p>3.4. Sarrerako ate bakoitzean hainbat kontrol-puntu jarriko dira, pertsona-fluxu arin baterako behar adina jarri ere, eta oposizio-gileak bere NANA erakutsiko du identifikatzeko. Puntu horretan, eskuak desinfektatzeko gel hidroalkoholikoa emango zaio, baita maskara ere, beharrezkoa bada, eta dagokion azterketa-gunera sartzeko jarraibideak emango dizkiote.</p> <p>3.5. Oro har, sarbideek hala eskatzen dutenean, eskailerak erabiliko dira, igogailuak erabiltzea saihestuz. Hala ere, behar izanez gero, igogailuaren erabilera ahalik eta txikiena izango da, eta pertsona bakar batek erabiliko du kasu bakoitzean.</p> <p>3.6. Ez da onartuko maskara babesgarririk ez duen inor sartzetik. Maskara horrek ahoa eta sudurra estali beharko ditu, erabiltzailea gunean dagoen bitartean. Parte-hartzaileen batek maskara egokirik ez badu, bat emango zaio kontrol-puntuan, baina salbuesenez.</p> <p>3.7. Oposizio-gile bakoitzaren objektu pertsonalak ezinbestekoak diren gutxienekoak izan beharko dira, eta, azterketa-gunean kokatu ondoren, lurrean egon beharko dute une oro, ikusteko moduan, azterketariaren ondoan eta haren zaintzapean.</p> <p>III. Probak egin bitarteko neurriak</p> <p>4. Oposizio-gileen osasuna babesteko neurria.k</p> <p>4.1. Oposizio-gileek nahitaez erabili behar dute maskara probak egin bitartean. Oposizio-gileek ezingo dute</p>	<p>3.1. Sólo se permitirá el acceso a los edificios a los opositores que realicen las pruebas y personal implicado en el desarrollo de las mismas.</p> <p>3.2. En cada uno de los edificios donde se desarrollen las pruebas, se indicarán claramente los accesos correspondientes y se ubicarán los elementos necesarios para su visualización desde el exterior y una ágil identificación del acceso que corresponda en cada caso por parte de los candidatos.</p> <p>3.3. Para el acceso a los edificios donde se llevarán a cabo las pruebas, se proporcionarán elementos para facilitar la formación de una fila hasta la puerta asignada por parte de los opositores, quienes seguirán las indicaciones de cartelería y del personal de apoyo de modo que se garantice en todo momento la distancia de seguridad interpersonal de 1,5 metros. Cuando accedan a los espacios de examen correspondientes, igualmente mantendrán siempre una distancia de 1,5 metros entre personas y esperarán en el lugar que corresponda (exterior o interior) siempre que sea necesario.</p> <p>3.4. En cada puerta de acceso se ubicarán diversos puntos de control, en número adecuado para un flujo ágil de personas, donde el opositor mostrará su DNI para</p>
---	--



<p>eskularrurik erabili, segurtasun faltsua eragiten baitute.</p> <p>4.2. Ezin izango da materialik partekatu (boligrafoak, etab.), eta, beraz, oposizilogileak probak egiteko behar den guztia eramango duela ziurtatu behar du.</p> <p>4.3. Azterketa-guneetarako irteerak eta sarrerak ezinbesteko minimoetara murriztuko dira eta txandaka egingo dira, eta pertsonen arteko 1,5 metroko tartea bermatuko da.</p> <p>4.4. Oposizilogile bati sintomak hasten bazaizkio edo detektatzen bazaizkio, isolamenduko gune erreserbatuta eramango dute.</p> <p>4.5. Sintomak hasi zaizkion oposizilogilea larritasun-egoeran dagoela edo arnasa hartzeko zailtasunak dituela ikusiz gero, 112 zenbakira deituko da.</p> <p>4.6. Ariketa bukatu ondoren, oposizilogileak begi-bistan utziko du ariketa, mahai gainean, eta ezin izango du ikasgela utzi, harik eta hura erretiratu arte.</p> <p>4.7. Ikasgelatik modu ordenatuan irten beharko da, 1,50 metroko distantzia-arauak errespetatuz eraikinaren kanpoalderaino. Behin kanpoan, gogorazten da arauak errespetatu behar direla eta komeni dela osasun-agintariek ezarritako gomendioak betetzea.</p>	<p>identificación. En este punto se dispensará gel hidroalcohólico desinfectante de manos, así como de mascarilla si fuera necesario, y se darán las indicaciones para acceder a la zona de examen correspondiente.</p> <p>3.5. Como regla general, se utilizarán las escaleras en caso de que los accesos así lo exijan, evitando el uso de ascensores. No obstante, en caso de necesidad, el uso de ascensor se limitará al mínimo posible y estará restringido a una sola persona.</p> <p>3.6. No se permitirá la entrada de ninguna persona desprovista de mascarilla protectora, que deberá cubrir boca y nariz mientras se permanezca en el recinto. En el supuesto de que alguno de los participantes no disponga de la oportuna mascarilla, se le suministrará una de manera excepcional en el punto de control.</p> <p>3.7. Los objetos personales de cada opositor deberán ser los mínimos imprescindibles y, una vez situados en el sitio de examen, deberán permanecer en todo momento en el suelo en lugar visible junto al examinando y bajo su custodia.</p> <p>III. Medidas durante la celebración de las pruebas</p> <p>4. Medidas para la protección de la salud de los opositores.</p> <p>4.1. El uso de la mascarilla es obligatorio para los opositores</p>
---	---



<p>4.8. Hona hemen oposiziotegileek proba osoan jarraitu beharko duten sekuentzia:</p> <ul style="list-style-type: none">• Errespetatu ezartzen diren sarbide-denborak eta lekuak.• Gunera sartzeko, pertsonen arteko 1,5 m-ko segurtasun-tartea zaindu.• Kartelek eta hormetako seinaleek adierazitakoari jarraitu.• Sarbidea kontrolatzeko guneetan, akreditazioa aurkeztu (erakutsi, baina enragatu gabe) eta eskuak garbitu soluzio hidroalkoholikoarekin.• Erakundearen jarraibideei jarraitu, azterketa-mahaian egon arte.• Gauza pertsonalak lurrean utzi, bere ondoan, ikusteko moduan.• Maskara une oro jarrita duela egin azterketa.• Azterketa egin ondoren, eskua altxa, mahaian beteta utzi eta epaimahaiak jaso arte itxaron.• Azterketa amaitutakoan, antolatutako irteera egin gunetik, antolakuntzaren argibideei jarraituta.• Eskuak disoluzio hidroalkoholikoarekin garbitu.• Egoitza irten, 1,5 metroko tarte fisikoa gordez.• Saihestu multzoak edo pilaketak eraikinaren barruan nahiz kanpoan. <p>5. Epaimahaiko kideen eta oposizioan parte hartzen duten gainerako langileen osasuna babesteko neurriak.</p> <p>5.1. COVID-19arekiko kalteberen kolektibokoak diren langileek, aurrez azaldutako babes-neurriez gain, laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuaren jarraibideak ere bete beharko dituzte.</p>	<p>durante todo el desarrollo de las pruebas. No se permitirá el uso de guantes por parte de los opositores, ya que producen una falsa seguridad.</p> <p>4.2. No se podrá compartir material (bolígrafos, etc...), por lo que el opositor debe asegurarse de llevar todo lo necesario para la realización de las pruebas.</p> <p>4.3. Las salidas y entradas a los espacios de examen se reducirán a las mínimas imprescindibles y por turnos, garantizando la distancia interpersonal de 1,5 metros.</p> <p>4.4. En caso de que un opositor iniciara síntomas o estos fueran detectados, se le llevaría a la zona reservada de aislamiento.</p> <p>4.5. En el caso de percibir que el opositor que iniciara síntomas estuviera en una situación de gravedad o tuviera dificultad para respirar, se avisaría al 112.</p> <p>4.6. Una vez terminado el ejercicio, el opositor dejará su ejercicio a la vista, encima de la mesa y no podrá abandonar el aula hasta que no se le haya retirado.</p> <p>4.7. La salida del aula deberá hacerse de manera ordenada, respetando las normas de distanciamiento de 1,50 metros hasta el exterior del edificio. Una vez fuera, se recuerda la obligación de respetar las normas y la conveniencia de seguir las</p>
---	---



<p>5.2. Tolosako Udalak babes-materialak (maskarak, eskularruak, gelak) emango dizkie epaimahaietako kideei, aholkulariei eta laguntzaileei.</p>	<p>recomendaciones establecidas por las autoridades sanitarias.</p>
<p>5.3. Halaber, maskara erabiltzea nahitaezkoa da epaimahaiko kideentzat, aholkulari teknikoentzat eta laguntzaileentzat, probak amaitu arte. Bestalde, baloratuko da oposiziogileekin harreman estua duten uneetan erabilera bakarreko eskularruak erabili edo ez, besteak beste, azterketak entregatzerakoan eta jasotzerakoan.</p>	<p>4.8. Se enumera seguidamente la secuencia que deberán seguir los opositores durante toda la prueba</p>
<p>5.4. Langileren bat gaixotasunaren sintomak izaten hasten bada, isolamendu-eremu erreserbatura eramango da, eta berehala jarriko dira harremanetan horretarako prestatutako telefonoarekin eta, hala badagokio, laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuekin. Nolanahi ere, lanpostua utzi egin beharko du osasun-profesional batek bere egoera medikoa baloratu arte.</p>	<ul style="list-style-type: none">•Respetar los tiempos y lugares de entrada que se establezcan•Acceder al recinto guardando la distancia de seguridad interpersonal de 1,5metros.•Seguir las indicaciones por cartelería o señalética de las paredes.•En los puntos de control de acceso, presentación de acreditación (mostrar sin llegar a entregar) y lavado de manos con solución hidroalcohólica.•Seguir las indicaciones de la organización hasta ocupar mesa de examen•Dejar efectos personales en el suelo en lugar visible junto al examinando.•Realizar el examen con la mascarilla puesta en todo momento.
<p>5.5. Sintomak izaten hasi den langilea larritasun-egoeran dagoela edo arnasa hartzeko zailtasunak dituela ikusiz gero, 112 zenbakira deituko da.</p>	<ul style="list-style-type: none">•Una vez realizado el examen, levantar la mano, dejarlo cumplimentado en la mesa y esperar a que el tribunal proceda a recogerlo.•Finalizado el examen, proceder a la salida organizada de la zona bajo las indicaciones de la organización.
<p>6. Babes indibidual eta kolektiboko beste neurri batzuk</p>	<ul style="list-style-type: none">•Lavado de manos con solución hidroalcohólica.•Salida de la sede guardando la distancia física de 1,5 metros.
<p>6.1. Komunitateko gehieneko okupazioak pertsonarteko 1,5 metroko tartea bermatu behar du uneoro.</p>	
<p>6.2. Saihestu behar da erabilera amankomuneko elementuak ukitzea: botoiak, ateetako heldulekuak,</p>	



<p>eskudelak eta abar. Ateak irekita mantenduko dira, baldin eta eraikinaren ondare-segurtasunari eragiten ez badio eta aire- edo zarata-korronteengatik egoera deserosoak sortzen ez badira. Beharrezkoa izanez gero, mekanismo horiekin ukondoa erabiliko da, edo oinak irekitzeko eta ixteko.</p> <p>6.3. Debekatuta dago elikagaiak kontsumitzea eta manipulatzeko horretarako gaituta ez dauden guneeetan.</p> <p>6.4. Eztul edo doministiku egitean, ezinbestekoa da ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta estaltzea.</p> <p>6.5. Begiak, sudurra eta ahoa ez dira ukitu behar.</p> <p>6.6. Erabili eta botatzeko zapiak erabili behar dira. Erabili ondoren, horretarako prestatutako paperontzietan utzi behar dira.</p> <p>6.7. Edozein motatako kontaktu fisikoa saihestu behar da, eta pertsonen arteko 1,5 m-ko segurtasun-tartea zaindu behar da une oro.</p> <p>IV. Probak egin ondorengo gomendioak eta neurriak</p> <p>7. Hondakinen kudeaketa</p> <p>7.1. Ohiko moduan kudeatuko dira hondakin arruntak, hondakinak bereizteko protokoloak errespetatuz.</p> <p>7.2. Higiene pertsonaleko material</p>	<p>•Evitar grupos o aglomeraciones tanto en interior como exterior del edificio.</p> <p>5. Medidas para la protección de la salud del tribunal y demás personal implicado en la oposición</p> <p>5.1. Los trabajadores que pertenezcan al colectivo de población vulnerable para COVID-19 deberán seguir, además de las medidas de protección expuestas previamente, las indicaciones del servicio de prevención de riesgos laborales.</p> <p>5.2. El Ayuntamiento de Tolosa proveerá de materiales de protección (mascarillas, guantes, geles) a los miembros de los tribunales, asesores y al personal de apoyo.</p> <p>5.3. El uso de mascarillas es obligatorio igualmente para los componentes del tribunal, asesores técnicos y personal de apoyo hasta la finalización de las pruebas. Podrá valorarse el uso de guantes de un solo uso en los momentos de contacto estrecho con los opositores como la entrega y recogida de exámenes.</p> <p>5.4. Si algún trabajador comenzase a tener síntomas de la enfermedad, se le llevará a la zona reservada de aislamiento y se contactará de manera inmediata con el teléfono habilitado a estos efectos y, en su caso, con los correspondientes servicios de prevención de riesgos laborales, debiendo abandonar, en todo</p>
---	---



<p>guztia (zapiak, maskarak, etab.) eta erabili eta botatzeko beste edozein material horretarako prestatutako paperontzietan utzi beharko dira.</p> <p>8. Probak zaintzea eta zuzentzea</p> <p>Epaimahaiko kideek, probak zaintzeko eta zuzentzeko, baldin eta bulegoko materiala beste pertsona batzuekin partekatzen badute, eskularruak erabil ditzakete. Eskularru horiek aldian-aldian garbitu edo soluzio hidroalkoholikoarekin pasatu beharko dira. Bestalde, ez dute aurpegia ukitu beharko, edo eskuak maiz garbitu beharko dituzte urarekin eta xaboiarekin, eta, sarritan, soluzio hidroalkoholikoa aplikatu beharko dute.</p>	<p>caso, su puesto de trabajo hasta que su situación médica sea valorada por un profesional sanitario.</p> <p>5.5. En el caso de percibir que el trabajador que iniciara síntomas estuviera en una situación de gravedad o tuviera dificultades para respirar, se avisaría al 112.</p> <p>6. Otras medidas generales de protección individual y colectiva</p> <p>6.1. La ocupación máxima de los aseos garantizará la distancia interpersonal de 1,5 metros en todo momento.</p> <p>6.2. Debe evitarse tocar elementos de uso común, botones, manillas de apertura de puertas, pasamanos, etc. Se mantendrán las puertas abiertas en la medida que no afecte a la seguridad patrimonial del edificio y siempre y cuando no se generen situaciones incómodas por corrientes de aire o ruido. En caso de que sea necesario, se procurará accionar dichos mecanismos con el codo, accionando la apertura o cierre con los pies.</p> <p>6.3. Se prohíbe el consumo de alimentos así como su manipulación en los espacios no habilitados a su efecto.</p> <p>6.4. Al toser o estornudar, es imprescindible cubrirse la boca y la nariz con el codo flexionado.</p> <p>6.5. Debe evitarse tocarse los ojos, la nariz y la boca.</p>
---	---



	<p>6.6. Deben utilizarse pañuelos desechables. Tras su uso, deben depositarse en las papeleras específicas destinadas a ese fin.</p> <p>6.7. Debe evitarse el contacto físico de cualquier tipo y mantener la distancia de seguridad interpersonal de 1,5 metros en todo momento.</p> <p>IV Recomendaciones y medidas posteriores a la celebración de las pruebas</p> <p>7. Gestión de residuos</p> <p>7.1. La gestión de los residuos ordinarios se realizará del modo habitual, respetando los protocolos de separación de residuos.</p> <p>7.2. Todo material de higiene personal (pañuelos, mascarillas, etc.) y cualquier otro material desechable se deberá depositar en las papeleras dispuestas al efecto.</p> <p>8. Custodia y corrección de las pruebas</p> <p>Para la custodia y corrección de las pruebas, los componentes del tribunal, si comparten material de oficina con otras personas, podrán utilizar guantes que, con regularidad, deberán lavar o pasar solución hidroalcohólica y no tocarse la cara, o bien aplicar lavado frecuente de manos con agua y jabón, y frecuentemente, aplicar solución hidroalcohólica</p>
--	---



TOLOSAKO
UDALA

--	--

Tolosa, 2020ko uztailak 20